

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2016ko abenduaren 5etik abenduaren 9rako astea

INGURU MAKROA:

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


ASTE HONETAN MERKATUETAN

GURE IKUSPEGIA

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: EUROGUNEKO PMI KONPOSATUA



Datuaren analisia

Markiten Euroguneko Jarduera Osoaren PMI konposatua 53,9ko mailara heldu zen azaroan, hasieran aurreikusitako 54,1etik pixka bat behera, baina daturik onena izan zen 2015eko abendutik. Manufakturen ekoizpenaren hazkundera apur bat moteldu zen urriarekin alderatuta, baina, hala ere, zerbitzuen sektorearen jarduera komertziala baino erritmo azkarxeagoan hedatu zen. Eta hori aintzat hartuta zerbitzuen sektoreak azken 11 hiletan izan duen hazkunde erritmo azkarrena dela. Herrialdeka, Espainiak hedapen-erritmo handienak izan zituen; Alemania urrian bezala egon zen ia; eta Frantziak, aldiz, behera egin zuen, manufakturen sektorearen motelaldiaren ondorioz.

Adierazlearen azalpena

Euroguneko zerbitzuen eta manufakturen sektoretako 5.000 enpresari baino gehiagori hilero bidaltzen zaien galdetegi baten erantzunetatik lortzen da PMI Konposatua. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: EBZ-REN BILERA

Euroguneko aurreikuspenak - EBZ

	2016ko abendua				2016ko iraila		
	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018
BPGd	1,7	1,7	1,6	1,6	1,7	1,6	1,6
KPI	0,2	1,3	1,5	1,7	0,2	1,2	1,6

Datuaren analisia

Europako Banku Zentralak bederatzi hilabetez atzeratu du, 2017ko abendura arte “edo gehiago, beharrezkoa balitz”, martxoan mugaeguneratuko zen zorra erosteko programa. Hala ere, apiriletik aurrera, programaren bolumena 80.000tik 60.000 milioi eurotara murriztuko du. Mario Draghik erosketa-programan egindako aldaketak jakitera eman ditu. Besteak beste, urtebeteko mugaeguna daukan zorra erosteko aukera emango dela (lehen gutxienez mugaegunak bi urtekoa izan behar zuen), eta % -0,4tik beherako errentagarritasuna daukan zorra erosi ahal izango dela (hau da, gordailuaren tasatik behera). Gainera, aurreikusita zegoen bezala, EBZk interes-tasei eta trukerik gabeko gordailuaren erraztasunari % 0 eta % -0,4an eustea erabaki du, hurrenez hurren. EBZk ere 2016 eta 2019 bitarteko eurogunerako hazkunde eta inflazio aurreikuspenak doitu ditu. Erakundeak espero du eurogunea % 1,7 haztea 2016an eta 2017an (2017an aurreikusitakoa baino hamarren bat gehiago), eta % 1,6 2018an eta 2019an. Inflazioari dagokionez, aldiz, % 0,2ko KPIa espero du urte honetarako, eta 2017an % 1,3ra iristea (irailean iragarritako % 1,2tik), % 1,5era 2018an eta % 1,7ra 2019an.


Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 herrialdeetako diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak bultzatu beharko ditu ere, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ISM ZERBITZUAK



Datuaren analisisa

Manufaktura ez den ISMak hazkunde handia bizi izan zuen, 54,8tik 57,2ra igo baitzen, adostutakoa baino emaitza hobea (55,5eko aurreikuspena) eta daturik altuena 2015eko urritik.

Osaerari dagokionez, enpleguaren osagaiak izan duen gorakada nabarmendu behar da, 53,1etik 58,2ra igo baita. Gainera, negozioaren gainean dagoen ikuspegia neurtzen duen osagaiak ere hobera egin du, eta 57,7tik 61,7ra igo da. Ordaindutako prezioek, oster, behera egin dute pixka bat (56,6tik 56,3ra), eskari berriek bezala (57,7tik 57ra).

Adierazlearen azalpena


Manufaktura ez den ISM indizeak hileroko erosteketa profesionalei eta enpresetako exekutiboiei egiten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jardura-maila neurtzeko balio du, sektore horretan egiten diren erosteketa bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Estatu Batuetako kontsumoaren KPIaren zati handi baten isla ere bada. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: 3. HIRUHILEKOKO BEHIN BETIKO KALKULUA

PIB JAPON (Contribuciones)



Datuaren analisisia

Urteko hirugarren hiruhilekoan, ekonomiaren urte arteko hazkundera % 1,3koa izan zen, aurretik aurreikusitako % 2,2ko igoeraren ondoren, Japoniako gobernuak argitaratutako datuen arabera, eta Barne Produktu Gordina (BPGd) kalkulatzeko aplikatutako metodologia aldatu ondoren. Aurreko hiru hilabeteekin alderatuta, Japoniako ekonomiak % 0,3ko hazkundera izan zuen uztaila eta iraila bitartean, datuaren lehenengo kalkulutik, % 0,5etik, behera. Hirugarren hiruhilekoan, Japoniako etxeen kontsumo pribatuak % 0,3ko hazkundera izan zuen, aurretik egindako % 0,1eko kalkulutik behera; esportazioek, aldiz, % 0,3 egin zuten gora, aurreko % 0,5aren aldean.


Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: BALANTZA KOMERTZIALA



Datuaren analisisa

Azaroan, 44.610 US\$-eko superabit komertziala eman zen, soberakinaren aurreikuspenak 46,300 milioi US\$ eta urrian erregistratutako superabita 49,060 US\$-ekoa izan zen bitartean. Azaroan, inportazioek % 6,7 egin zuten gora urte arteko neurketan, merkatuak zituen % 1,3ko jaitziera baten aurreikuspenak gaindituz. 2014ko irailetik eman den aurrerapenik handiena izan zen. Lehengaien eskari handi batek eragin du iguera hori, hala nola ikatzaren eta burdin-mineralaren eskariak. Esportazioek ere ezustean egin zuten gora, munduko eta etxeko kontsumoaren igoerari jarraikiz.

Adierazlearen azalpena

Balantza komertzialaren saldoa esportazioen eta inportazioen arteko aldea da, hau da, herrialde batean ekoiztu eta kanpoan saltzen diren ondasunen eta zerbitzuen balioaren eta beste herrialde batean ekoiztu eta erosten direnen balioaren arteko aldea. Saldoa negatiboa denean defizit komertziala ematen dela esaten da, hau da, esportazioen balioa inportazioena baino txikiagoa denean; superabit komertziala, ordea, esportazioen balioak inportazioena gainditzen duenean ematen da. Adierazle ekonomiko hori herrialde baten ordainketen balantzako osagai bat da.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
12/13	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6.1
12/13	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 10.2
12/13	Alemania	Hileko KPIa	% 0.1
12/13	Espainia	Hileko KPIa	% 0.3
12/13	Italia	Hileko industria-ekoizpena	% 0.3
12/13	Erresuma Batua	Hileko KPIa	% 0.2
12/13	Eurogunea	QoQ enplegua	--
12/13	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	59.0
12/13	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	14.0
12/13	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
12/14	Japonia	Tankan manuf indize handia	10
12/14	Japonia	Takan ez manuf pronostiko handia	18
12/14	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	--
12/14	Frantzia	Hileko KPIa	% 0.0
12/14	Erresuma Batua	Erregistratutako langabezia	% 2.3
12/14	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	% 0.1
12/14	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
12/14	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratua	% 0.3
12/14	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% -0.3
12/14	Estatu Batuak	FOMC tasen erabakia (sabaia)	% 0.75
12/15	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
12/15	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	51.8
12/15	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	51.9
12/15	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	51.6
12/15	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	54.5
12/15	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	54.9
12/15	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	54.9
12/15	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	53.7
12/15	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	53.8
12/15	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	53.9
12/15	Erresuma Batua	MoM txikizkako salmentak autoen erregairik gabe	% 0.0
12/15	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0.250
12/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	4.0
12/15	Estatu Batuak	Hileko KPIa	% 0.2
12/15	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	255k
12/15	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	9.3
12/15	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	54.4
12/15	Estatu Batuak	Etxebizitzaren merkatuaren NAHB indizea	63
12/16	Frantzia	Enpresen konfiantza	102
12/16	Eurogunea	Balantza komertziala SA	24.5b
12/16	Eurogunea	Hileko KPIa	% -0.1
12/16	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak	1230k
12/16	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% -7.0
12/16	Estatu Batuak	Eraikitze baimenak	1240k

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK

Munduko burtsa nagusiek itxiera positiboak izan zituzten. Asteari beldurrekin ekin zitzaion Italiako erreferendumean ezetzak irabazi ondoren. Izan ere, lehen ministroak dimisioa eman ondoren, Italiak beste ziurgabetasun bolada bat biziko du, eta, gainera, merkatuak are gehiago beldurtzen dituen egoera baten aurrean jarri ditu: alderdi euroeszeptikoen gorakada. Hala ere, saioak aurrera egin ahala, urduritasuna baretu egin zen, Wall Streeten kotizazio errekor berrien laguntzarekin. EBZren bilera zen beste arreta-guneetako bat. Erakundeak harridura eragin zuen zorra erosteko programa gutxienez 2017ko abendura arte luzatuko zuela iragarri zuenean, nahiz eta apiriletik aurrera, erosketen zenbatekoa hileko 80.000 milioietatik 60.000 milioietara murriztuko duen. Aldi berean, bere murrizketa tekniko batzuk aldatu zituen, erosketen helburua lortzeko nahikoa aktibo dagoela ziurtatzeko. Merkatuek erantzun ona eman zieten neurrioi, batez ere banku-sektoreak; azken horri Italiako Monte dei Paschi bankuaren erreskateak ere lagundu zion.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
MSCI WORLD (Local)	1.366,58	3,29	6,95
IBEX 35	9.169,60	6,54	-3,92
DJ EURO STOXX 50	3.197,54	6,05	-2,14
DJ STOXX 50	2.951,29	5,02	-4,81
FTSE	6.954,21	3,32	11,40
S&P 500	2.259,53	3,08	10,55
Dow Jones	19.756,85	3,06	13,38
NASDAQ	5.444,50	3,59	8,73
NIKKEI 225	18.996,37	3,10	-0,20
MSCI EMERGENTES (Lo)	48.285,29	2,17	8,55
MEXBOL	46.913,47	5,29	9,16
BOVESPA	60.500,62	0,31	39,56
SHANGHAI	3.385,15	-0,34	-8,62
Rusia Rts Moscú	1.110,14	5,71	46,64

ERRENTA FINKOA:

EBZk hartutako neurriek epe luzeko errentagarritasun subiranoen hazkundera eragin zuten, bi urterako errentagarritasunek atzera egin zuten bitartean. 10 urterako bonu alemanak 8 op galdu zituen aste amaieran, eta % 0,37an kokatu zen. Hala ere, hamar urterako Espainiako bonuak 3 op egin zuen atzera, % 1,51raino, eta arrisku prima 11 op murriztu zen, 114,88 puntuetaraino. Espainiako bi urterako tasak mugimendu handiagoa izan zuen, 11 op egin baitzuen atzera, % -0,25eko mailaraino; 30 urterako Alemaniako bonua, aldiz, 22 op igo zen. Amerikako zorrak gora egin zuen kurbaren tarte guztietan, hamar urterako bonuaren errentagarritasuna 8 op handituz, % 2,47raino. Bestalde, errenta aldakorrarekin bat etorritz, kreditu-merkatuak bere diferentzialak estutu zituen.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	% Ald 2016
ALEMANIA 2 URTE	-0,75	-0,02	-0,41
ESPAINIA 2 URTE	-0,25	-0,11	-0,26
AEB 2 URTE	1,13	0,04	0,09
ALEMANIA 10 URTE	0,37	0,08	-0,26
ESPAINIA 10 URTE	1,51	-0,03	-0,26
AEB 10 URTE	2,47	0,08	0,20
ALEMANIA 30 URTE	1,17	0,22	-0,32
ESPAINIA 30 URTE	2,80	0,01	-0,18
AEB 30 URTE	3,15	0,09	0,14
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	73,39	-5,04	-3,88
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	309,87	-23,28	-4,75

DIBISAK/LEHENGAIK:

Aste mugitua Italiako erreferendumaren eta EBZren bileraren ondoren. Euroak % 0,97 egin zuen atzera billete berdearen aurrean, eta truke-tasa 1,06\$/€-an geratu zen. Lehengaien artean, berriz, petrolioaren prezioak atzera egin zuen pixka bat, LPEE eta Errusiaren artean adostutako ekoizpenaren murrizketa nahikoa izango delakoan gehiegizko ekoizpena desagerrarazteko. Urreak, berriz, balioa galdu zuen.

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
Dolarra / Euroa	1,06	-0,97	-2,81
Yena / Euroa	121,61	0,32	-6,89
Libera / Euroa	0,84	-0,41	13,63

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	2016ko % Ald
Petrolio (Brendt)	53,59	-0,52	49,90
Urrea	1.160,01	-1,46	9,29

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.